

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**273/2014 Foru Agindua, ekainaren 11koa, behin betiko onarpena ematen diona Legutioko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak Elosuko 1. poligonoko 887 hiri lurzatian dagoen 19 zenbakiko etxeari dagokionez aldatzeko espedienteari**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Legutioko Udalak, 2013ko irailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea udal planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedienteari, Elosuko 19 zenbakiko etxearen ingurukoari, bai eta espediente hori jendaurrean jartzea ere. Azken honetarako, iragarki egokiak argitaratu ziren ALHAOn 2013ko urriaren 9an (116. zk.), eta Diario de Noticias de Alava eta Berria egunkarietan, 2013ko urriaren 4an, eta Elosuko Administrazio Batzarrari berri eman zitzaion.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2013ko azaroaren 27ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2013ko abenduaren 23an sartu zen idazki baten bidez, Legutioko Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onartzeko. Eskatutako dokumentazioa 2014ko martxoaren 21ean osatu da.

Laugarrena. Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 zenbakiko Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espediente horri buruzko txostena eman zuen, ekainaren 3ko 3/2014 bilkuran.

#### OINARRIAK

Lehenengoa. Espediente honek, partikular batek sustatuak eta Legutioko Udalak izapide-tuak, aldatu egiten ditu udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioak, Elosuko herrigunean dagoen 1 poligonoko 887 hiri lurzatiari dagokionez. Arau horiek martxoaren 11ko 365/2003 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu ziren, eta urte horretako azaroaren 12an argitaratu ziren ALHAOn, 132. zenbakian

Bigarrena. Aldaketak bi helburu ditu:

– Alde batetik, txostenaren gaia den lurzatian kokaturiko eraikuntza multzoaren iparraldean dagoen eraikin erantsiko lehengo ikuiluak partez suntsitu nahi dira. Horretarako, beharrezkoa da eranskin hori indarrean dauden arau subsidiarioek "historia eta arkitektura balioa duen eraikuntza" kategoriarekin babesten duen eraikuntza taldearen barruan katalogatutako elementutzat ez hartzea, zeinean baimendutako eraikuntza esku-hartzea eraberrikuntza baita, 317/2012 Dekretuan, urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko ekintza babestuei buruzkoan, eranskineko III.3. puntuan definitzen dena.

– Eta beste aldetik, aurrekoaren ondorioz, dauden lerrokadurak aldatzea, antolamendu planoetan grafiko bidez proposatutako eraikuntza-lerro berrira moldatuz, eta lerro horretatik kanpoko lurra erabilera publikorako lagaz.

Hirugarrena. Proposamenaren arrazoi bezala azaltzen da, eraisketarekin eta, ondoren, eraikitako bolumenaren zati bat kendutako lurzatiaren barrurantz atzeratuz, bolumen handiko ibilgailuen zirkulazioagatik sortutako arrisku egoerak ekiditen direla.

Horrengatik, beharrezkoa da udalak eranskinei kultura baliodun elementu bezala ematen dien babesa ezabatzea, esandako katalogazioa eraikuntza talde horren erdiguneko erainierako mantenduz.

Laugarrena. Azkenean, eta lerrokadurak doitzeari dagokionez, aldaketa puntual honek zuzkidura publikoak handitu ez ezik, eraikitako espazio pribatuaren kaltetan, bide zirkulazioak sortutako arazoak ekidin ere egin litzake, udaleko arkitektoak bere txostenean adierazten duen bezala.

Horrengatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onarpena ematea Legutioko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak Elosuko 1. poligonoko 887 hiri lurzatian dagoen 19 zenbakiko etxeari dagokionez aldatzeko espedienteari.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 11

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko Diputatu*  
*MARTA RUIZ CERRILLO*